

Errolda

Alta, baja, helbide aldaketa

Zizur Nagusia

Xedea

- Udal errolda eguneratzea, gertatuko diren altak, bajak eta aldaketak jasoz.

Organo kudeatzailea

Zizur Nagusiko Udaleko Zerbitzu Orokorraren Departamentua.

Eskaera bideratzeko epea

- Ez dago eskaera aurkezteko eperik.

Organo erabakitzailea

- Alkatetza.

Onuradunak

Edozein pertsona fisiko.

Baldintzak

Ez dagokio.

Zenbatekoa

Doakoa.

Eskaera bideratzeko epea

- Berehalakoa.

Dokumentazioa

ALTAK emateko:

- Nortasun agiria edo horren ordezko agiriren bat (pasaportearen edo atzerriko txartela).
- NA ez duten adin txikikoek familia liburua.
- Bizilekuaren ziurtagiria (eskriturak, edozein ordainagiri –argia, gasa...-). Alokairuan dagoenean, alokairuaren kontratu originala. Etxebizitzaren jabea ez bada, eta alokairuan ere ez badago, jabearen edo erroldatuta dagoen lehen pertsonaren baimena, eta azken horren NAren fotokopia.
- Adin txikikoren bat beren gurasoak bizi diren etxean erroldatzen denean, gurasoen baimena adin txikikoa erroldatzeko, baita erroldatuko den etxebizitzaren titularrarena ere. Aipatu pertsonen NAren fotokopia (gurasoen eta etxebizitzaren titularrarena).

DATUAK ALDATZEKO:

- Nortasun agiria edo horren ordezko agiriren bat (pasaportearen edo atzerriko txartela).

BAJA emateko:

- Alta eman duen Udalak kudeatuko ditu baja.
- Etxebizitzaren titularrak pertsonaren bat bere etxebizitzatik erroldaz kanpo utzi nahi badu, idatziz egin beharko du; horrenbestez, Udalak bere kabuz baja emateko espedientearen abiaraziko du. Prozesua bukatuta, erabakia Estatistika Institutu Nazionaleko Errolda Kontseilura pasako du. Prozesua ebazteko epea urtebete ingurukoa da.

Araudia

- Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legea, udal erroldari dagokionean, aldatu zuen urtarrilaren 10eko 4/1996 Legea (BOE, urtarrilaren 12koa).
- Abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretua, zeinak Toki Entitateetako Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua aldatu baitzuen.

Berriazko datuak

- Datuen aldaketa orok aldaketa horren ziurtagiria izan behar du.
- Biztanleen Udal Erroldan izena emanen duten adinez nagusi guztiek sinatu behar dute.

Aldaketa data 2006/02/15

Iraunaldia 2007/02/15